

2019/09/24

## A211. JARDUERA SOZIOKULTURALAK

### **BIGARREN ARIKETA**

*Denbora, gehienez: 120 minutu.*

*Zuzeneko gehieneko puntuazioa: 10 puntu*

### **Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.**

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
  - **LEP kodea (A211)**
  - **Identifikazio-gakoa**
  - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**
  - **Kasu praktiko bakoitzaren erantzunak gehienez orrialde erdiko luzera izan behar du.** (Ez dira zuzenduko luzeagoak)

**Eskerrik asko zure laguntzagarik**

\*\*\* Gogoan izan: kasu praktiko bakoitzaren erantzunak gehienez orrialde erdiko luzera izan behar du. \*\*\*

**1. KASU PRAKTIKOA.-** Zeure ardura izan da **“1, 2, 3... ARGAZKIA! Argazkigintzari eta ondareari buruzko lantegiak, familientzat”** programaren bigarren edizioa kudeatzea. Familiei zuzenduta zegoen. Montehermoso kulturunean gauzatu da, larunbat goizetan. Aldez aurretik izena ematea eskatzen zen, eta pertsona bakoitzeko 2 euroko kuota ordaintzea. Ibilbide bat proposatu da argazkigintzaren munduan barrena, eta bertan parte-hartzaileek ikasi ahal izan dute nola funtzionatzen zuten XIX. mendeko lehenengo kamera ilun haiek, eta halaber norberaren argazkiak errebelatzen, eta esperientziak eta oroitzapenak partekatu ahal izan dituzte Pilar Aróstegui Udal Artxiboko argazki-funtsak tarteko.

Egindako lanekin, erakusketa egin da Montehermosoko klaustroan, 15 egunez.

Programa bukatu delarik, bukaerako ebaluazioaz arduratu beharra daukazu.

**GALDERAK (Kasu praktikoaren balioa: 1 puntu)**

1.1.- Zer neurtuko duzu, ebaluazioa egitean?

1.2.- Adieraz itzazu 3 adierazle, eta ebaluazioa egiteko kasuan kasu erabiliko zenituzkeen tresnak.

**2. KASU PRAKTIKOA.-** Gasteizko Udalaren 2020-2022 aldirako helburu estrategikoen artean dago 14 urtetik 25era bitarteko gazteen partaidetzak % 15 gora egin dezala lortzea hainbat zerbitzuek eskaintzen dituzten programetan — Hezkuntza, Kultura, Kirola, Gazteria, Herritarren Partaidetza, Gizarte-etxeak eta beste—.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: puntu 1)**

2.1.- Helburu hori lortzeko ekintzen proposamena.

**3. KASU PRAKTIKOA.-** Besteak beste zinema-proiektzioak eta hitzaldiak eskaintzen dituen kultur programa baten arduraduna zara —14 urtetik gorakoei zuzenduta dago—.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: puntu 1)**

3.1.- Azaldu ezazu nola aplikatu genero-ikuspegia kultur programa horretan.

**4. KASU PRAKTIKOA.-** Familiei zuzendutako programa bat jarri du martxan Ibaiondo-Arriaga zonako lantaldeak, eta zeu zara proposatutako ekintzetako zenbait kudeatzearen arduraduna.

Félix Petite antzokian aurreikusitako ikuskizunetako bat eszenaratu baino astebete lehenago, konpainiaren mezu bat jaso duzu posta elektronikoz, eta bertan azaltzen dizute ikuskizuneko artistetako batek istripua izan duela eta ezinezkoa zaiela egun horretarako ordeztzea, eta, beraz, Gasteizko emanaldia bertan behar utzi beharra dagoela.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: puntu 1)**

4.1.- Zerrendatu itzazu gertaera horren ondorioak konpontzeko martxan jarri beharreko neurri eta gestioak.

**5. KASU PRAKTIKOA.-** Udal Liburutegi Publikoen Sareak komikiaren inguruko programazio berezia sortzea proposatu du, xedetzat harturik irakurketa sustatzea, sorkuntza bultzatzea eta, oro har, Gasteizko herritarren artean komikiaren mundua ezagutaraztea.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: puntu 1)**

5.1.- Egizu testuinguruaren analisisa, komikiak Gasteiz hirian duen presentziari dagokionez, proiektua definitu aurreko urrats modura.

\*\*\* Gogoan izan: kasu praktiko bakoitzaren erantzunak gehienez orrialde erdiko luzera izan behar du. \*\*\*

**6. KASU PRAKTIKOA.-** Gasteizko auditorio berriaren obrak bukatu direlarik, inaugurazioa izango da laster. Bi emanaldi programatu dira horretarako:

- \* Berlingo Orkestra Filarmonikoa, Donostiako Orfeoiarekin batera, auditorioko areto nagusian, 20:00etan.
- \* Fura dels Baus taldea, argi-ikuskizun ibiltari batekin, bukaera auditorioaren kanpoaldeko plazan duela, 22:00etan.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: puntu 1)**

6.1.- Emandako datuak kontuan izanik, azal itzazu ikuskizun baten eta bestearen ekoizpena kudeatzeko prozesuen arteko aldeak.

**7. KASU PRAKTIKOA.-** Gasteizen “Gau Zuria” izeneko ekitaldi bat martxan jartzea erabaki du Udalak, besteak beste esparru guztietako kultur adierazpenak barne hartzen dituen programa bat. Hauek dira helburu nagusiak:

- Hiriko al bait kultur eragile gehien inplikatzea.
- Hiriko espazio eta ekipamenduak erabiltzea, abiapuntutzat hartuta berorien erabilerarik ohikoenak, kokalekua, ezaugarriak eta beste.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: 2 puntu)**

7.1.- Proposa ezazu programazio justifikatu bat, gutxienez 10 ekintza zehatzekin, adierazitako bi alderdiak kontuan izanik (ez dago ordutegiak zehaztu beharrik).

**8. KASU PRAKTIKOA.-**

Kultura Zerbitzuak Gasteizko kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko egin duen dirulaguntza-deialdira aurkeztutako kultur proiektuak baloratu behar dituen lantalde teknikoko kidea zara.

Balioespen-irizpideen artean honako hauek ageri dira deialdian: proiektuak hirian duen “garrantzi kulturala” eta “eragin kulturala”.

**GALDERA (Kasu praktikoaren balioa: 2 puntu)**

8.1.- Egizu “**Poetak maiatzean**” eta “**Korterraza**” proiektuen balioespen teknikoa, bi alderdi horiei dagokienez.

\*\*\* Gogoan izan: kasu praktiko bakoitzaren erantzunak gehienez orrialde erdiko luzera izan behar du. \*\*\*